

AUTONOMIA PERTSONALA ETA INDEPENDENTZIA EKONOMIKOA



I. ERANSKINA: haur-literatura aztertzeko jarraibideak.

- Nor da istorioaren protagonista? Inoiz emakume bat al da istorioaren protagonista?
- Emakumezko pertsonaien eta gizonezko pertsonaien kopurua.
- Emakumezko eta gizonezko pertsonaien garrantzia eta prestigioa.
- Emakumeek bakarrik egiten dituzte etxeko lanak?
- Gizonek bakarrik egiten dituzte etxetik kanpoko eta ordaindutako lanak?
- Kiroletan, zientzian eta abenturan beti gizonak dira protagonista?
- Ausardia, erabakiak hartzea, erantzukizuna, anbizioa, adorea, ekintza eta arrakasta soziala eta profesionala gizonei dagozkie bakarrik?
- Beldurra, negarra, emozioak, beste pertsona batzuen zaintza, afektibitatea, eta sentsibilitatea emakumeei dagozkie bakarrik?
- Emakumezko pertsonaiaren helburu nagusia ezkontzea edo gizonezko bikotekide bat aurkitzea da?
- Gizonezko pertsonaiei aktibotasuna dagokie, eta emakumezkoek, pasibotasuna?
- Pastel-koloreak emakumezko pertsonaiarentzat bakarrik erabiltzen dira?
- Emakumezko pertsonaien ezaugarri fisikoak nabarmentzen dira? Emakumezko pertsonaiaren bat gutxien dute bere itxura fisikoagatik?
- Objektuen ilustrazioetan egoera hauetakoren bat edo estereotipatutzat jotzen dituzun beste batzuk gertatzen dira?
 - Maleta gizonen objektu bat da.
 - Amantala emakumeen objektu eskusiboa da.
 - Betaurrekoek itxura adimentsua ematen diete gizonei; emakumeei, aldiz, itxura haserrekorra ematen diete, edo ez diete itxura aldatzen.
 - Egunkaria gizonen kontua da.
 - Norbait leiho baten atzean agertzen bada, emakumea da.
 - Sofa aitarentzat da beti.